

Ortuen inguruko txostena

1 Sarrera

Ortuak jubilazio aktibo bat edukitzeko tresna egokiak direla ikusi da. Horregatik, ortuak baldintza minimo egoki batzuetan edukitzea beharrezkoa da; batez ere, arriskuak txikituz eta erabiltzaileen arteko elkarbizitza erraztuz.

2 Ur hornidura

Arazo nagusia ur hornidura da, batez ere, udan ura hatzeko erabiltzen duten erreka ur gabe geratzean ondorioz. Bitarteko konponbide bezala, herriko iturri ezberdinetan ura hatzen dute eta autoz bertara eramaten dute.

2.1 Ur hornidura berreskuratzeko

2019/8/1-an adibidez, gauean euri asko egin duelako errekek urez bete dira, baina ur tutuek haizea hartu dutenez, errekek ura ez da egoki jasotzen. Hori dela eta, purgatu beharra daude bi puntuetan haizea kentzeko aukera dagoelarik.



Ura jasotzeko puntua



Ura eramateko erabiltzen den tutuari haizea kentzeko lehen puntua



Ura eramateko erabiltzen den
tutuari haizea kentzeko bigarren
puntu



Ur deposituak
Haizea kentzeko puntu bat ere badago

Puntu horietako bat, erreka bazterrean dagoena, arriskutsua da, batez ere edadetuentzako. Heziak pasatu behar dira eta aldats labainkor bat jaitsi behar da. Hezi horiek pasatzeko egurrezko pausu batzuk jarri daitezke eta erreka jaisteko harrizko eskailera batzuk.



2.2 Ura lotzeko beste aukera bat: Lur azpiko ura ateratzea

Ortuetako batean, irudian agertzen den txabolaren eskuin aldean, 30 metroko sakoneran, 3000 litro orduko atera izan dituztela esaten dute. Ur hori ateratzeko un bonba bat beharko litzateke. Kontuan izan behar da, bertan ez dagoela elektrizitaterik. Arazoa udan denez, aztertu beharko litzateke eguzki plakekin elektrizitatea lortu daitekeen.



2.3 Ura lortzeko beste aukera bat: Almeneko ura aprobetxatu

Almen inguruan ur iturri zahar bat dago. Iturri hori ortuetatik 300 bat metrotara kokatzen da. Aurreko sistemaren antzerako aukeraz baliatu daiteke baina, kasu honetan, Almenen dagoen elektrizitate punturen bat aprobetxatu daiteke.

3 Baliabideen mantenua

Ortu barruan dagoen egurrezko mahaiak mantenua behar du. Erabiltzaileek pintura apur bat eskatzen dute, margoketa egin ahal izateko.



4 Bideen mantenua

Ur deposituetara joateko, baso bideak daude. Bide horiek narrez betetzen dira. Udalaren aldetik ez dago horiek garbitzeko prozedurarik. Horrek ere, uraren mantenu egokia egiteak zaildu egiten du.



5 Beste batzuk

Orduak herritik aparte daudenez bi arazo identifikatu dira:

- Erabiltzaileak adinekoak dira eta ortuetara oinez joaten dira. Hori dela eta, istripuren bat edo erorketaren bat suertatuz gero, zailtasunak dituzte egoki artatuak izan ahal izateko.
- Lapurreta kasuak detektatu dira.